

EUSKOTRENEK AUTOBUSEN IBILBIDEA ALDATUKO DU SORALUZEN HILAREN 8tik (ASTEARTEA) AURRERA

Geraleku aldaketa Zarautzen, igandean, Kilometroak ekitaldia dela-eta

Soraluzeko Baltegieta kalean egingo diren obren eraginez, urriaren 8ko (asteartea) 8:30etik aurrera, Euskotrenek DB06 Soraluze-Ondarroa lineako Lurraldebus autobusen ibilbidea aldatuko du. Aldaketa hori obrak bukatu arte mantenduko da; aurreikuspenen arabera, lanek hiru aste iraungo dute.

Datorren astearteko 8:30etik aurrera, Errebal eta Baltegieta geltokiak kendu egingo dira. Horrez gain, Soraluzeko hasierako geldialdia Estaziño kalean egingo da (eskuarki Olea Errekan egiten da).

Geltoki aldaketa Zarautzen, urriaren 6an (igandea), Kilometroak ekitaldia dela-eta

Datorren urriaren 6an (igandea), Kilometroak ekitaldia dela-eta, Euskotrenek DB02 Ermua-Donostia (AP-8) eta DB03 Lekeitio-Donostia (AP-8) lineetako Lurraldebus autobusen Zarautzeko geltokietako bat aldatuko du.

Zehazki, normalean su-hiltzaileen esparruan egiten den geldialdia trenbidearen zubiaren azpian egingo da.

Informazio gehiago nahi duten erabiltzaileek Euskotrenen telefono-zenbaki honetara dei dezakete: 944 333 333, edo www.euskotren.eus webgunea eta @euskotrenEJGV Twitter kontua kontsultatu.

Bidalketa-eguna: 2019ko urriaren 3a, osteguna